

ELGOIBAR / Markel Bergararen bisita Udal Liburutegira Liburutegien Eguna ospatzeko

Urriak 24a Liburutegiaren eguna da. Data hau ospatzeko hainbat ekintza antolatu ditu Gotzon Garate Udal Liburutegiak. Gaur, 18:00etan Markel Bergara, Errealeko jokalaria, izango da liburutegian argazkiak sinatzen. Bestaldetik liburuak maileguan hartzen dituztenek oparitxo bat izango dute gaur eta gainera antzerkirako sarrerak zozketatuko dira bazkideen artean ('Bodologuak' eta 'Su txikian', helduentzat, eta 'Pirritx eta Porrotx' pailaoen saioetarako, txikienentzat).

Bi lehiaketa martxan jarri ditu Elgoibarko Udal Liburutegiak. Lehenengoa, Elgoibarko DBHko ikasleentzat zuzendutako 'Irakurtzen' argazki digitalen lehiaketa. Irabazleak 50 euroko sari bat jasoko du eta bigarrenak 25ekoa. Bigarren lehiaketa berriz 'orri bilatzaile' edo 'separadore'ena da. 100 euroko saria jasoko du irabazleak eta edozein elgoibartarrek parte hartu ahal izango du. Lehiaketen buruzko informazio gehiago Udal Liburutegian.